



## GIMNASIOKO BAZKIDE EGITEKO DEIALDIA

Azaroan hasita Ibarra futbol zelaian aurkitzen den gimnasioa berriztatzeko obra abian da. Urtarrilak 2an bazkideentzat zabalik izango da gimnasioa.

Hau dela eta Urriak 31an burutu zen udalbatzan 2017 urterako bazkide izateko kuota berriak onartu ziren.

2017 kuotak:

Kuota mota	Arrunta	*ikaslea(16-25 urte)	**gizarte laguntzak
Hilabete	15	10	5
3 hilabete	39	27	15
Urte erdi	72	50	25
Urte osoa	120	80	40

Bazkide egitea Abenduak 12tik aurrera posible izango da horretarako kuota orria bete behar da udalean. Bertaratu ezin duenak web orritik ([www.berriatua.org](http://www.berriatua.org)) jaitsi ahal du eta udalean entregatu.

Bazkide egitean giltza elektronikoa eta kirol instalazioetako arautegia jasoko duzue.

Bestalde Abenduak 28 eta 29an 12:00tatik13:30etara eta19:00tik 20:30etara ateak zabalik egongo dira instalazio berriak ikusi eta probak egiteko.

Gomendatzen da urte hasieratik bazkide egitea urte guztia aprobetxatzeko.

Jon Arriola Espilla